

DIGItalde
/eginaz ikasi

# LANKIDETZA-INGURUNEEN DISEINUA, TRESNA DIGITALEN BITARTEZ

# 1 SAREAN LAN EGINEZ

Gero eta ohikoagoa da, esparru fisiko berean eta are kontinente berean ez dauden pertsonek eta lantaldeek amankomuneko proiektuak eta helburuak partekatzea. **Pertsona** hauek **elkarren menpe** lan egiten dute. Beraz, denborari eta esparru fisikoari dagozkien eragozpenak gainditzeko, behar-beharrezkoa da proiektuak **gardentasun osoz dokumentatzea** ahalbidetuko duten **ingurune eta tresna digitalak** erabiltzea. Hauxe da, funtsean, elkarlanaren edo lan kolaboratiboaren oinarria.

Gainera, enpresa ertain eta handi, erakunde sozial eta administrazio publiko gehienetan, **produktibitatea areagotu eta helburuak betetzea** dute helburu, eskueran dituzten giza-**baliabideak** eta baliabide materialak **optimizatuz**.

Alabaina, adostutako helburu argirik gabe, ibilbidearen mapa diseinatu gabe eta, batez ere, helburuak lortzen lagundu, sustatu eta motibatuko duen “komunitate” bat sortu gabe, tresna horiek “jostailu digitalak” besterik ez dira.

Hori dela eta, **Digitalden**, bezeroarekiko **ko-sorkuntzan** oinarritutako lana proposatzen dugu lan kolaboratiboko proiektu horietarako; eginkizuna **hainbat fasetan** zatituz; pertsonei **lagunduz**, proiektu osoan ilusioz eta motibazioz beteta egon daitezen; eta **komunitateak sortuz** eta **dinamizatuz**. Horretarako, abiapuntutzat hartuko ditugu **coaching teknologikoa** eta “learning by doing” delakoaren **metodologia, esperientzian eta bizitzan oinarritutako**.



# 2 GURE HELBURUA

Digitalden, partaidetza bultzatu eta bistaratu eta erakunde bereko edo erakunde desberdinetako pertsona eta taldeen arteko lankidetza eta elkarlana indartu nahi dugu. Hori guztia, lan kolaboratiboa erraztuko duten ingurune, jardunbide operatibo eta metodoen diseinuan oinarrituta.

Guztion onura' lortzen laguntzea, azken helburu bezala...

Horrez gain, Digitalden, elkarlanean gorpuztutako **jakite eta egite** hori guztia dokumentatu eta komunitatearekin berriz ere parteka dadila **sustatzen eta ahalbidetzen**.

# 3 GURE ZERBITZUAK

Lan-ildo honetan, hauexek dira zure eskueran jar ditzakegun zerbitzuak:

**1.** Lankidetza-inguruneen **diseinua**, tresna digitalen bitartez

**2.** Lankidetza-ingurune digitalen **ezarpena**

**3.** Ingurune digitaletan gauzatu beharreko lan kolaboratiboetarako egokienak diren tresnei buruzko **aholkularitza teknologikoa**

**4.** Ingurune eta tresna digital horien erabilerarako **gaikuntza eta erraztasunak**

**5.** Komunitateak ingurune digitaletan **dinamizatzeko estrategiak**

**6.** Hasierako helburuen betetze-maila **neurtzeko eta ebaluatzeko sistemen elaborazioa**

# 3 LAGUNDU AHAL DIZUGU

LANKIDETZA-INGURUNEEN DISEINUA,
TRESNA DIGITALEN BITARTEZ

Prozesuak optimizatzea, denborari eta kostuari dagokienez (bilera birtualak, informazioa banatutako moduan partekatzea, dokumentu bateratuak eraikitzea, hainbat hiritako pertsonekin era sinkronikoan komunikatzea, etab...)

'Jardunbide egokien' esperientziak eta ezagutza erakunde barruko beste pertsona, talde edo ordezkaritza batzuekin partekatzea.

Lan partehartzaileko taldeak sortzea; komunitateak, eztabaidak eta biltzarrak.

Erakunde edo enpresaren barruan komunikazioa-sistema horizontalagoa eta gardenagoa inplementatzea.

Proiektu profesional, sozial edo enpresarial berriak sortzea (berrikuntza arlokoak, sentsibilizazio arlokoak, eragin arlokoak, etab.)

Parte hartzeko plataformak dinamizatzea

# 4 GURE METODOLOGIA



Ingurune digitala diseinatu eta inplementatzeko nahiz erraztu eta dinamizatzeko, **konfiantza eta lankidetza maila** handia behar da Digitalde eta bezeroaren artean. Ondorioz, prozesu honek hainbat fasetan banatuta baina garatzeko-bidean dagoneari eta malguari erabat irekita egon behar du, gure ustez, fase eta pertsona bakoitzaren beharrizanetara egokitu ahal izateko.

Hauexek dira gure lan-metodologia osatzen duten pausoak:

**1.** Helburuen definizioa

**2.** Bide-orria lantzea, gauzatze-aldiko gertaera eta data zehatzak finkatuz

**3.** Aukeratutako ingurune digitala eta bertan era kolaboratiboan, banatuan eta arduratsuan lan egiteko erabili behar diren tresnak diseinatu eta inplementatzea.

**4.** Komunitatea dinamizatzea, dokumentu bateratuak eta komunitatearen barruan partekatutako ezagutza sortu eta antolatzeko asmoz.

**5.** Prozesua dokumentatzea, erabilitako materialak eta tresnak nahiz parte hartu duten pertsonen egunkari laburrak bilduz, erakundearen historia osatu ahal izateko.

**6.** Pertsonek proiektuan izan duten gogobetetze eta konpromiso maila neurtzea eta hasierako asmoen betetze-maila ebaluatzea

# 4 GURE METODOLOGIA



Digitalden, proiektuak faseka antolatzen ditugu, konplexutasuna sinplifikatuz. Hauexek dira zerbitzu hau antolatzeko erabiltzen ditugun faseak:

**Kontaktua eta konfiantza hartzea**

- Lortu eta neur daitezkeen helburu argien esplorazio bateratua
- Jarraitu beharreko estrategia sortzea

**Inplementazioa, errazte-lana eta aholkularitza teknologikoa**

- Pertsonaren eta erakundearen beharrizanetara egokitutako ingurune digitala eta jarraitu beharreko estrategia diseinatzea
- Ingurune digital horretan komunikazio sinkroniko eta horizontaleko sistemak inplementatzea
- Helburuari ongien datozkion tresna digitalak aukeratzea
- Tresna horien erabilera erraztu eta horretarako gaikuntza ematea

**Dinamizazioa**

- Dokumentu bateratuen eraikuntza
- Bilerak, hitzaldiak, komunitatearen komunikazio bisualak

**Neurketa eta ebaluazioa**

- Proiektuari dagozkion pausoak ekosistema digitalaren barruan dokumentatzea
- Hasierako helburuekiko egokitze-mailak neurtu eta ebaluatzea

# 5 GURE ESPERIENTZIA

## ELLACURIA FUNDAZIOA

2013. urtean  Ellacuria Fundazioaren Interneteko estrategian eta bere hedapenean lagundu genuen. Hauek dira egindako lan aipagarrienak:

- Interneteko komunikazio eta presentzia estrategiaren diseinua
- Webgunearen diseinua eta garapena
- Estrategia sare sozialetan
- Fundazioaren langileei trebakuntza eta laguntzea

*“Digitaldek sare sozialetako estrategia abian jartzen, webgunea berritzen eta lan kolaboratiboko tresnen erabilera ikasten lagundu zigun. Elkarrizketa eta prestakuntza-prozesu horretan, geure kasa moldatzen eta gure beharrizanetara ongien egokitzen ziren tresnak aurkitzen ikasi genuen. Talde-lanarekin batera, errefortzuak landu genituen mundu berri honi aurre egiteko zailtasunak zituzten pertsonekin. Digitaldek gaitasun teknikoa, giza-hurbiltasuna eta entzutea gaineratu zituen, erakundea eta honi atxikitako pertsonak zein unetan zeuden ulertu ahal izateko”*



ELLACURIA FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

**www.fundacionellacuria.org**

**Miguel Gonzalez**
Ellacuria Fundazioko zuzendaria

# 5 GURE ESPERIENTZIA



## EMANA

3 urtez emanaren Interneteko presentzia garatu eta kudeatu genuen.

- Interneteko komunikazio eta presentzia estrategiaren diseinua
- Webgunearen diseinua eta garapena
- Estrategia sare sozialetan
- Community managment
- Edukia sortu
- Email Marketing
- Maria Carrascaleri “coaching” teknologikoal.

*“Digitalde enpresa dinamikoa, malgua eta sortzailea da. Zure beharrizanak entzun eta kalitatezko artisau-produktua eskaintzeko gauza da. Nire esperientziaren arabera, berritzeko prest daude une oro, proiektuari eta honen beharrizanei ahalik eta erantzunik egokiena emateko asmoz. Horrekin batera, bezeroarekiko konpromisoa eta lana aurrera ateratzeko ardura txeratsua”*



EMANA

emana.net

**Maria Carrascal**
Emana-ko Zuzendaria

# 6 DIGITALDE GARA

Digitalde Galdakaon (Bizkaia) finkatutako komunikazio digitaleko enpresa da, aholkularitza digitala, prestakuntza eta gaikuntza teknologikoa, eta Interneteko presentziari buruzko estrategia (social media eta marketina) bezalako zerbitzuak eskaintzen dituena.

Digitalde izena bi hitz hauen arteko batura da: **digital + talde**. Hau da, ingurune **digitaletako** proiektuetan integratzen den **taldea** gara.

**Sarean** lan egiten duen **enpresa irekia** gara. Ondorioz, parte hartzen dugun proiektuen eskura jartzen ditugu Sare hau osatzen duten profesionalak, hainbat esparrutan, aholkularitzatik diseinu grafikoraino, esperientzia eta ezagutza zabala dutenak.

Gure lanak **artisau aholkularitzaren** filosofía du oinarri, gauzak ondo egitearen harrotasunari atxikita. Gure balio diferentziala, proiektu bakoitza lantzeko erabiltzen dugun mimoarekin lotuta dago, proiektu guztietarako gauza bera egitea dakarten estandarretatik ihes eginez, baita profesionaltasunarekin ere, lankidetza bakoitza proiektu paregabea bihurtuz.

Hementxe gauzkazu:

**Digitalde Comunicación en Red S.L.**
Bizkai kalea 38, B solairuartea, 2. moduloa
48960 Galdakao (Bizkaia)
Tfn: 652724637
Web: www.digitalde.eus
Email: info@digitalde.eus
Twitter: @digitaldeON



# 7 TALDEA ETA SAREA



Digitaldeko taldea 3 pertsona hauek osatzen dugu:



**Naiara Pérez de Villarreal**
Hedabide sozialetan eta marketin digitalean espezializatutako Artisau Aholkularia, eta Internet eta tresna digitaletan espezializatutako aholkularia.

**naiara@digitalde.eus**
**@naiarapzv**



**Mikel Sánchez**
Sare sozialetako aholkularia eta Social Media Strategist. Edukien elaborazioa, analitika, bilatzaileetako posizionamendua (SEO) eta SEM (Google Adwords-eko ziurtapena)

**mikel@digitalde.eus**
**@mikelsb**



**Ane Martínez Recio**
Internet eta tresna digitaletako aholkularia, prestakuntza, gaikuntza eta coaching teknologikoan trebatutako aditua.

**ane@digitalde.eus**
**@kizkur**

Hauez gain, gurekin batera lankidetzan jardun ohi duen profesional-sare sendoa dugu, honako pertsona hauek tarteko dituena, besteak beste:



**Julen Iturbe-Ormaetxe**
Artisau aholkularia



**Itxaso Diaz**
Bideasta eta dokumentalista



**Asier Etxebeste**
Aholkularia eta programatzailea



**Maika Prado**
Diseinatzailea eta ilustratzailea

DIGItalde
/eginaz ikasi